

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

BERGARAKO UDALA

*Udaleko Ingurumen teknikaria lanpostua betetzeko deialdia. Oinarrien akats zuzenketak.*

2024ko urriaren 17an emandako dekretu baten bitartez, Bergarako Udaleko alkateak erabaki zuen lehiaketa-oposizio irekiaren bidez Administrazio Berezia eskalako, Teknikarien azpieskalako eta Goi Mailako Teknikarien klaseko plaza, eta aldi berean, Ingurumen teknikariaren lanpostua behin betiko betetzeko hautaketa-prozesuen oinarriak onartzea eta dagokion deialdia egitea.

2024ko azaroaren 22ko datarekin Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara eman ziren.

Oinarrietan akatsa sumatu denez, alkateak 2024ko abenduaren 16an emandako dekretu bidez zuzendu egin da, eta honen bitartez ematen da argitara zuzenketa.

Hirugarrena. Hautagaien baldintzak eta eskakizunak, oinarrian.

— *Honela jasotakoak:*

c) Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen honako titulu akademikoa izatea: Ingurumen Ingeniaritzako Graduko edo Ingurumen Zientzietako Graduko titulazioa edo parekideak.

— *Honela esan behar du:*

c) Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen honako titulu akademikoa izatea: Ingurumen Ingeniaritzako Graduko edo Ingurumen Zientzietako Graduko titulazioa.

Erabakiaren aurkako bideak: Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka interesdunek Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea dago, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki deritzaten beste edozein errekurtso ere jar dezakete.

*Lege-oinarria:* Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailearen 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergara, 2024ko abenduaren 17a.—Gorka Artola Alberdi, alkatea. (9306)

AYUNTAMIENTO DE BERGARA

*Convocatoria para la provisión de una plaza de técnico/a de Medio Ambiente del Ayuntamiento. Corrección de errores.*

Mediante Decreto de Alcaldía del Ayuntamiento de Bergara de fecha 17 de octubre de 2024, se acordó realizar la convocatoria y aprobar las bases que han de regir el proceso selectivo mediante concurso-oposición libre para la provisión de la plaza de la Escala de Administración Especial, Subescala de Técnicos y Clase de Técnicos Superiores, así como el puesto de Técnico/a de medioambiente.

Las bases de la convocatoria fueron publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 22 de noviembre de 2024.

Habiéndose observado un error en las bases publicadas, se ha procedido a su subsanación mediante Decreto de Alcaldía de fecha 16 de diciembre de 2024, la cual se publica mediante el presente anuncio.

Tercera. Condiciones y requisitos de las personas candidatas.

— *Donde dice:*

c) Estar en posesión del título indicado a continuación, antes de la finalización del plazo de presentación de instancias: Grado en ingeniería medioambiental o grado en ciencias medioambientales o titulación equivalente.

— *Debe decir lo siguiente:*

c) Estar en posesión del título indicado a continuación, antes de la finalización del plazo de presentación de instancias: Grado en ingeniería medioambiental o grado en ciencias medioambientales.

Recursos contra la resolución: Contra la presente resolución, que es definitiva en vía administrativa, las personas interesadas podrán interponer recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en un plazo de dos meses contados a partir del siguiente a la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Todo ello sin perjuicio de que puedan interponer cuantos otros recursos estimen procedentes.

*Base legal:* Los artículos 114.c, 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el artículo 8 de la Ley 29/1998, de 13 de julio de 1998, reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa, conforme a la redacción de la Ley Orgánica 19/2003 de 23 de diciembre, y el artículo 46 de la misma ley, así como el artículo 5 del Código Civil.

Bergara, a 17 de diciembre de 2024.—El alcalde, Gorka Artola Alberdi. (9306)